

## Ogibiderik zaharrenak



### ***Pantaleon eta bisitariak***

Jatorrizko izenburua: *Pantaleón y las visitadoras* (1973)

Egilea: Mario Vargas Llosa

Itzultzailea: Santi Leoné

Argitaratze urtea: 2011

Argitaletxea: Elkarlanean

### ANDER ARANA

Suediako Nobel Fundazioak 2010eko Literaturako Nobel Saria Mario Vargas Llosari ematea erabaki zuenean, mesede ederra egin zigun euskaldunoi, oharkabean eta zeharbidez. Izan ere, Arrasateko AED Elkartek eta Elkar argitaletxeak, Kutxa Fundazioaren laguntzarekin, Jokin Zaitegi Sariketa antolatzen dute urtero, aurreko urteko Nobel saridunaren lan bat euskaratzeko; oraingoan, Santi Leoné iruinsemeak irabazi du erronka horri aurre egiteko ardura. Mario Vargas Llosa idazle handia da, Hego Amerikako inoizko idazlerik handienetakoa esango nuke nik. Nobel Saria irabazteko merezimendurik ez du falta, ez, ondo irabazia du, hori ez du inork ukatuko, baina Mario Vargas Llosaz ari garenean zaila egiten da idazlaria eta pertsona bereiztea, eta pertsonaz ari garelarik haren jarrera ideologikoaz eta politikoaz ari gara, eta, Vargas Llosaren kasuan, jarrera hori bereziki mingarria egiten zaio euskaldun asko eta askori, abertzaletasunari eta hizkuntza gutxituei buruz esan dituenak entzunda. Alegia, Nobel Saria jaso izan ez balu, susmoa daukat urteak beharko zirela inor haren lana euskaratzera deliberatu arte. Jorge Luis Borgesek kasua dakarkit gogora: bere jarrera politikoak Nobel Saria irabaztea eragotzi zion, baina gaur egun bere lanaren literatur balioa nagusitu da ezbairik gabe, eta, zorionez, Borgesek literatura gozatzen dugu, jarrera politikoak (ia erabat) ahaztuta.

*Pantaleon eta bisitariak* klasiko bat da dagoeneko gaztelaniazko literaturan, eta, beharbada, euskarazko bertsioa irakurtzen duten gehien-gehienek irakurria izango dute lehendik jatorrizkoa, edo ikusia izango dute Francisco Lombardik 1999an egindako filma. Laburbil dezagun, badaezpada ere, eleberraren argumentua: Peruko armadak Garnizio, Mugaldeko Postu eta Antzekoentzako Bisitarien Zerbitzua –prostituten zerbitzua, azken batean– antolatzeko agindua eman dio Pantaleón Pantoja Intendentziako kapitainari, oihanean isolatuta bizi diren soldaduen sexu-grinak asetzeko. Pantak, zorrotasun zientifiko erabatekoz, azken muturreraino eramango du eman zaion agindua, eta hori izango da, hain zuzen ere, bere galbidea: jasotako agindua kosta ahala kosta betearazi nahia. Vargas Llosak berak adierazi zuen legez, Pantaleón Pantoja bere printzipioen sendotasunaren erruz hondoratzen den gizasemea da. Vargas Llosak Peruko oihanera 1958an eta 1962an egindako bidaietan bertatik bertara ikusitakoan oinarrituta dago eleberria, eta gertakari horiek baliatu zituen, eredugarriak izan beharko luketen erakundeek hipokrisia salatzen.

Esana dugu *Pantaleon eta bisitariak* euskarara ekartzeko erronka Santi Leonéri egokitu zaiola, eta okertzeko beldurrik gabe esan daiteke bere lehen itzulpen honetan ederto jardun dela munduko ogibiderik zaharrenean, Vargas Llosaren estilo eta hizkera oparo, aberats eta sarritan itzulgaitza gurera modu naturalean ekartzekoan. Izan ere, zein da berez ogibiderik zaharrena? Prostituzioa? Itzulpengintza? Horra eztabaidarako puntua.